

CAFen inpunitatearen amaieraren hasiera?

Koldo SAGASTI

CAFek astindu ederra jaso berri du Europan. Beasaingo enpresa hautagai onena zen Belgikako Trenbide Konpainia Nazionalea 600 tren berriz hornitzeko kontratuaren lehian, 3.400 milioi euroko hitzarmen mamitsua. Baina, apirilaren 9an, Belgikako Estatu Kontseiluak bertan behera utzi zuen Gipuzkoako konpainiaren historiako kontraturik garrantzitsuena izan zitekeena. Euskal prentsak ez ditu azaldu erakunde belgikarraren erabakiaren arrazoiak, eta lanpostuen irizpidea ikusi nahi izan du ebazpenaren atzean. Izan ere, bigarren hautagaiak, Alstom konpainia frantziarrak, 3.000 langile dauzka Brujas eta Charleroiko lantegietan, eta kontratua CAFi esleitzeko lanpostu belgikar horiek konprometitzea litzateke.

Baina, etxeko korridorean daukagun elefantearen aurrean ez ikusiarena egingo ez badugu, ezin dugu saihestu kontratuaren balizko esleipenak Belgikan eragin duen polemika. Parlamentuko bi alderdik, PVDak (Belgikako Langileen Alderdia) eta Groenek (Belgikako Berdeak), gogor kritikatu dute euskal konpainiaren partaidetza Palestinar eremu okupatueta apartheid-trenbidearen eraikuntzan. Horrez gain, iragan apirilaren 14an, “Le Soir” egunkarian, Belgikako unibertsitateetako 120 irakaslek baino gehiagok gutun ireki bat helarazi zioten Jean-Luc Crucke Mugikortasun Ministroari, CAFen Jerusalemgo proiektua nazioarteko legediaren kontrakoa dela salatzeke. Sinatzaileek, halaber, dei egin zioten ministroari, erantzukizunez jokatu eta konpainia gipuzkoarra lehia-

keta publikoetatik kanpo utz dezan. Gauzak horrela, ez litzateke arraroa pentsatzea gizarte-presio horrek ere pisua izan duela Estatu Kontseiluaren erabakian. Hori gutxi balitz, martxoaren 9an, Jerusalemgo trenbideko linea gorriko inaugurazio-ekitaldian, CAFeko ordezkari batzuk Benjamin Netanyahu genozidarekin batera parte hartu izanak ere ez zuen estetikoki gehiegi lagunduko Belgikako kontratu publikoa eskuratzeko deman. Bere garaian CAFek Israelgo administrazioarekin lan egiteko hautu estrategikoa egin zuen, eta Jerusalemgo proiektutik erretira zedin egin zitzaizkion eskaera guztiei muzin egin zien. Baliteke jada atzera egiteko berandu izatea, baina ez da berandu haien etikarik gabeko jokaeraren lehenengo ondorioak ikusten hasteko. •

Eskerrik asko Imanol, estimatua dago

Asier AIESTARAN

Zutabe hau beste gai baten inguruan idazteko asmoa nuen, baina ordenagailu aurrean esertzera nindoanean entzun dut albistea: Imanolek ez du Realean jarraituko datorren denboraldian. Zurrumurruak aspalditik bolo-bolo bazebiltzan ere, onartu behar dut baieztapen ofiziala heltzean pena txiki bat sentitu dudala, tristura puntu bat. Zerrenda nitzakeen hemen oriotarrak aulkitik gidatu dituen kirol lorpen apartak: Real titulua bat irabazten ikusteko esperantza handirik ez genuen belaunaldi bati opari hori eskaini izana –gizonezkoen taldeaz ari naiz, noski–, buruko min eta umiliazio iturri

besterik ez zen Kopa ilusioz beterik hartzen den txapelketa bilakatzea, edota taldea Europako lehiaketetara sailkatzea ohitura bihurtu izana. Baina hori ez da garrantzitsuena. Pentsa, orain dela ez horrenbeste, Ipuruan eta Galen izan ginen Real Bigarren Mailan animatzen, eta ederki asko pasa genuen. Eta Lehen Mailara igotzea lortu zeneko festa ere gogoangarria izan zen. Esaera batek dio futbola, eta kirola orokorrean, gauza ez-garrantzitsuetan garrantzitsuena dela, eta hobe denontzat horrela hartzea. Horregatik, zelaian irabazitako guttia bezainbeste, zelaitik kanpo ereindako hazia eskertu behar zaio Imanoli.

Prentsaurreko eta elkarrizketa bakoitzean erakutsitako apaltasuna, euskararekiko une oro erakutsi duen begirunea, harrobiko jokalariei eman dien garrantzia eta Realak talde moduan izan beharko lukeena ulertarazteko etengabe egin duen pedagogia. Olatu handia da futbolarena, leheritzen denean bidean harrapatzen duen guztia aurretik eramaten duena, eta eskertzekoa da tsunami ero horretan gure gaztetxoentzat erreferente duinak aurkitu ahal izatea. Aspaldi aipatu zuen Imanolek, berak jarraitu ala ez, garrantzitsuena klubean gauzak ongi egitea zela. Espero dezagun geratzen direnek berak bezain argi izatea. •